

## ZIZUR NAGUSIKO EMAKUMEEK HERRIKO PUNTU KRITIKOEN BERAIEIEN MAPA AURKEZTU DUTE, ETA ZIZUR ZIURRAGO ETA BIZIGARRIAGO BAT ERAIKITZEKO ALDAKETEN PROPOSAMENAK ERE.

Zizur Nagusiko emakumeek ikerketa parte-hartzaile baten bitartez, ziurtasun eza eta toki batzuetatik pasatzean beldurra sentitzen duten 19 puntu kritiko atzeman dituzte; hortaz, mota ezberdinetako proposamenak aurkeztu dituzte leku hauek itxuraz aldatzeko, eta baita genero ezberdintasunak zaintzeko ere, modu horretan, Zizur aske, ziur eta emakumeentzat bizitoki egokiago bat eraikitzeko.

Espazio publikoak ematen duen ziurtasun ezaren bizipena bi dimentsio ezberdinetan ulertu behar dela jakinda hasi da; batetik, hiri-ingurunearen (leku fisikoen) ezaugarriei begira, eta, bestetik, leku horiei ematen zaien erabilerarekin lotuta.

Dimentsio bikoitz honetatik, hiri-ingurunean argiztapen falta, ikuspen gutxiko tokiak, leku itxiak, hutsak eta gaizki komunikatuak identifikatu dira; eta erabilerarekin lotutakoak, gizonetako baino ez dauden tokiak, jenderik gabeko lekuak, jai girotik etxera bueltatzekoak, edo aipamen eta txiste matxistak egiten direnak... Aipatutako elementu horiek dira emakumeengan beldurra eta segurtasun eza sortzen dutenak. Esandakoa kontuan hartuz, Zizur Nagusian zehar dauden 19 puntu kritikoak edo arriskutsuak identifikatu dira.

Ondorio nagusi bezala, esan dezakegu:

- Emakumeen beldurraren eta segurtasun ezaren hautematea orokorra dela, eta gizarte matxista batean emakumeek emakume izateagatik duten ezaugarri bereizlearekin lotuta dagoela. Kanean ibiltzeari beldurra izaten ikasten dute emakumeek. Ikasketa prozesu honek dimentsio bikoitua du: emakumeak kanean erasotuak dira, beraz, benetako arriskua bada, baina errealitatearekin bat ez datorren beldurraren irudi bat ere bada gainera, emakumeen kontrako eraso gehienak ez baitira kanean ematen, etxean edo leku pribatuetan baizik, eta, gainera, ezagunen artekoa izaten ohi da.
- Emakumeengan sortzen den beldurraren sozializazioak iturburua txikitako garaian eta mezu eta ohituren bitartez zabaltzen da: “kontuz ibili”, “ez etorri bakarrik etxera” eta antzeko mezuak jasotzen dituzte neskak etxean, eskolan, telebistan eta abarretan. Beste hainbat egoeratan ere murgilduta ikusten dute beraien burua emakumeek gartzetatik; gazteek beraien aipatutako egoera nahiko arrunta da eta Zizurretik zehar ibiltzeko beraien higikortasuna gehien eragozten duena, beraien adin bereko mutikoek iseka eginez baloik botatzen dizkietela oihuka edo beraien eguneroko bizitzarekin zerikusia duten gaiak aipatuz. Egoera horrek erne eta adi-adi ibiltzera behartzen ditu talde horien parentik pasatzean.
- Emakume helduek kaleari beldurra izateaz gain, etxean egoteari ere beldurra erakutsi dute. Etxean bakarrik bizi diren emakume helduek kontatu dute etxe barruetan beldurra sentitzea orokortu egin dela. Aho batez esaten dute ez ezagunen telefono deiak jasotzea, gauz zein egunez ohikoa bihurtu dela. Deitzen duten pertsonen galderak oso “arraroak” omen dira, galderen helburua

bakarrik edo beste norbaitekin bizi diren jakitea omen da“ Hau gertatzen ari da eta beldurgarria da”

Atzemandako errealitatearen aurrean, ikerketak lau ekintza-lerro zehazten ditu egoera eraldatzeko hainbat proposamenekin:

1. Hiriko biztanleriaren bereizketa saihestu: Santa Cruz zonaldea, apala eta geroz eta gutxiago baloratua dena, birgaitze-plan baten bultzada emanda. Halaber, Zizurreko beste auzoetatik komunikazioa eta irisgarritasuna hobetu.
2. Auzotarren arteko adiskidantzazko loturak sendotu: lekuaren eta bertako jendearen arteko ezagutza sustatzeak espazio publiko horretara ziurtasun zentzuzkoa ekarriko du. Orain arte Zizurrek izan duen bizitegi-gune erabileraren orde, gune komunitarioak sustatzea proposatzen da. Proposamen zehatz bat Ardoiko eraiki gabeko lursailak auzokoentzako baratze gisa prestatzea izango litzateke.
3. Generoen arteko harremanak landu: irisgarritasun askea bermatzeko hirigintza-jarduerekin batera gizartea eta harremanak ere kontuan hartu behar dira, betiere, gizarte matxistaren transformazioan eta generoen desberdintasunean oinarriturik. Ildo beretik jarraituz, emakumeen ahalduzko prozesuetan lan egin behar da, indarkeria sexistaren kontrako sentsibilizazio-kanpainak egiteaz gain, autodefentsa feminista landu behar da. Gizonezkoekin lan egitea ere garrantzitsua da, ez bakarrik maskulinitate hegemonikoaren eredia zalantzan jarriz, baita indarkeria matxistan gizonezkoek duten erantzukizunaren onarpenean ere.
4. Zizur Nagusia jasangarriagoa eta bizitzeko egokiagoa izatearen alde lan egin: hirigintza-garapenean generoaren ikuspuntua gehituta, jasangarritasuna ingurumena zaintzea bezala ulertuta, gizarte-justiziara heldu arte. Denda txikiak sustatuz, inguruko arteko harremanak indartzen laguntzen dutelako eta lekua bera biziberritzeko mesedegarriak direlako. Ildo honetan egindako proposamen zehatz guztiak gehitu dira arestian aipatutako eta detektatutako 19 puntu kritiko horiek eraldatzeko. Era berean, generoaren ikuspuntutik ideia ezberdinen lehiaketa bat egitea proposatzen da herriko leku guztiak bizitzeko egokiak izan daitezen, edota horma-irudiak egitea leku zehatz batzuk atseginagoak izateko.

Egitasmo hau Zizur Nagusiko Udaletxearen Berdintasun Zerbitzutik antolatu da *Mujeres Libres* eta *Zizurko Talde Feminista* taldeen lankidetzarekin. Horretaz gain, Zizur Nagusiko hainbat emakumeek ere parte hartu dute.